


Elkarteen militantziaz



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA



MAIDER LETURIAGA

Ez dakit literatura-ikasketak egin ditudanarengatik den, baina nekez onartzen dut hitzen erranahien deformatze ideologikoa. Azken hilabete hauetan, eta bereziki Frantzian Bruno Retailleau Barne ministro denez geroztik, *militante* hitza zentzu arrunt peioratiboan erabilia da. Nik uste nuen hitz horrek erran nahi zuela “pentsamendu baten alde ekiten duen presuna”, eta hala ematen du *Trésor de la langue française* erreferentziazko hiztegiak: “Bere ideiak, bere iritziak gailendu daitezten ekiten duena. Adibidez: *erregeza-le militante, errepublikazale militante*”. Baina, egun, hedabide eskuindarrek eta bereziki Barne Ministerioak hedatzen dituzten testuetan, *militante* hitza hitz larri gisa erabilia da, eta badirudi kontraerrana dela, egun, *militante* eta *errepublika* hitzak elkarrekin baliatzea.

Azken etsenplutzat daukat joan de irailaren 17an gertatu zaiona Poitiers-eko Arlette Moreau antzerki konpainiari: ikusgarri “engaiatuak” eta “militanteak” ontzen dituelakoan, estatuko zerbitzuek erabaki dute tropak ez duela “itun errepublikarra” errespetatzen. “Itun errepublikar” hori 2021eko dekretu baten bidez agertu zen, islamismoari kontra egiteko xedearekin: orduz geroztik, Frantziako edozein elkarte, Kultur Ministeriotik dirulaguntzak eskuratu ahal izateko, izenpetu

behar duen dokumentua da. Testu ofizial horretan baldintza hauek agertzen dira, besteak beste: elkarteak ez du gorrotora eta bortizkeriara deitu behar eta errespetatu behar ditu Errepublika frantsesaren sinboloak. Azken hilabeteetan, hitzarmen horretaz baliatuz, ekologia edo kultur alorretan hainbat elkarte ttipi eta handi “engaiatu” edo “militanteri” dirulaguntzak kendu dizkiete estatuko zerbitzuek. Ulertzen dudana, azken finean, hauxe da: gobernu frantsesak antierrepublikazaletzat dauzka “bere ideiak, bere iritziak gailendu daitezten ekiten duten” elkarteak.

Ipar Euskal Herrian Euskal Kultur Erakundea (EKE) dago: elkarte da, baina haren gobernantzan daude bai euskal kultur elkartetako hamaika ordezkari (dantza, kantua, musika, antzerki, bertsolaritza eremuetatik etorriak), bai erakunde publikotako hamar ordezkari (Hirigune, Departamendu, Eskualde eta Estatutik). Elkarte horren bazkideak dira berrehun bat euskal kultur elkarte, erran nahi baita, Ipar Euskal Herriko euskal kultur elkarte gehienak. Pentsa daiteke goiz ala berant berrehun elkarte horien “engaiat-

mentu” eta “militantziaren” errepublika-zaletasuna galdekaturako duela gobernuak, *errepublika* hitza bera desitxuratzen segitzen baldin badu. Anartean, estatuak, bere zorren izenean, %15 apaldu nahiko lioke bere dirulaguntza EKeri, Frantziako beste kultur elkarte guzietan bezala.

Batzuek diote Frantziako Estatua gatazkan sartua dela, oro har, elkarrekin. *L'Etat contre les associations. Anatomie d'un tournant autoritaire* [Estatua elkarrekin kontra. Bihurgune autoritario baten anatomia] saiakeran (Textuel, 2025), A. Delfini eta J. Talpin soziologoek argitaratzen dituzte beren ikerketa beldurgarriak: haien ustez, estatu frantsesak murrizten du espazio publikoa eta kontrolatu nahi ditu elkarteak –adierazpen askatasun lekuak direnak–. Bi adituek deitzen dituzte arlo guzietako elkarteak (osasun, kirol, bizitegi, lan, ekologia, hezkuntza, kultura) elkarretara daitezten, zentzu horretan “politiza” daitezten, bata bestea duinki sustengatzeko, Errepublikaren ohoretan. Egingarria den, ez nekike erraten, baina beharrezkoa litekeela segur naiz. ●